



BERGARAKO BARATZE EKOLOGIKOAK ADJUDIKATZEKO ETA KUDEATZEKO ORDENANTZA

Bergarako Udalak zenbait udal partzela herritarren eskura jarriko ditu aisialdirako baratze modura erabiltzeko. Udalak modu horretan aisialdi aktiborako eta inklusiborako topagune bat sustatuko du, gizatalde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremanak nahiz belaunaldi ezberdinen arteko trukea bultzatzeko; eta, aldi berean, nekazaritza ekologikoari bultzada bat emateko.

Helburuetako bat aisialdia den heinean, baratze hauetatik ateratako produktuak saltzea debekatuta egongo da eta, beraz, norberak kontsumitzeko eta etxeko erabilerarako soilik diren produktuak bakarrik landatu ahalko dira.

Ordenantza honen xedea da Bergarako Baratze Parkea osatzen duten lursailen erabilera eta aprobetxamendua arautzeko beharrezko baldintzak ezartzea eta, aldi berean, baratzeetako laborantza-jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna arautzea.

I. TITULUA

PRINTZIPIO OROKORRAK

1. artikulua. Ordenantzaren xedea

Ordenantza honen helburua da Bergarako Baratze Parkea osatzen duten lursailen erabilera eta aprobetxamendua arautzeko beharrezko baldintzak ezartzea eta, halaber, baratzeok adjudikatze prozedura, baratzetako laborantza-jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna arautzea.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

Ordenantzaren aplikazio-eremu objektiboa Bergarako Baratze Parkean kokatu diren lursailen barneko eremua izango da.

Eremu subjektiboari dagokionez, araudi honetan jasotako arauak Bergarako udalerrri honetako legezko eta izatezko egoiliar denei aplikatuko zaizkie baldin eta aukera badute aisialdiko baratze ekologikoak erabili, gozatu eta aprobetxatzeko, betiere adjudikatze ordenantza honetan aurreikusitako baldintza guztiak betez.

3. artikulua. Definizioak

a) Erabiltzailea: Lizentziaren adjudikazio-hartzailea edo titularra: Lagatzen edo alokatzen den ondasuna erabiltzeko edo aprobetxatzeko eskubidea jasotzen duen pertsona fisikoa. Hemen kontuan hartzen diren eraginetarako, aisialdiko baratze ekologikoa lagapenez edo alokairuz hartzen duen onuraduna da.

b) Emaizak: Baratzea erabiltzailearen ondorioz sorturiko etekinak, hau da, lur-ereintzatik eta lurra lantzetik sortutakoak; esate baterako, barazkiak, ortuariak, etab.

c) Elementu amankomunak: Baratzeak dauden udal lursailari dagozkion berezko elementuak, naturalak edo ezarrirakoak, jabe bati baino gehiagori edo denei balio zaizkienak: pasabideak, hesiak, hodiak, tangak, muga-piboteak, etab.

d) Erantzukizuna: Baratze-erabiltzaile bakoitzak duen erantzukizuna da, banako gisa eta erabiltzaile den sail-zatiaren arabera.

f) Baratze ekologikoa edo lursaila: Banakoari egokitzen zaion lursail-zatia. Eta horren arabera eratzten da erabiltzaile bakoitzaren erabiltzeko eskubidea.

g) Familia-unitatea: Etxebizitza berean izatez eta eskubidez elkarrekin bizi diren pertsonak: ezkontideak edo izatezko bikotea (edo bikotekide bat alarguntza, banaketa edo dibortzioen kasuan) eta adinez beherakoak diren seme-alabak baldin eta etxebizitza berean bizi badira.

h) Irisgarritasun unibertsala: Baldintza hori bete behar dute inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuak eta zerbitzuak zein objektuek, tresnek, bitartekoek eta gailuek, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izan behar baitute, betiere segurtasun eta erosotasun baldintzetan eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz.

i) Diseinu unibertsala eta ororentzako diseinua: Sortzen diren momentutik, inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak edo gailuak diseinatzerakoan, pertsona guztiek erabili ahal izateko modukoak diseinatzea, egokitzapenik edo diseinu espezializaturik behar gabe.

j) Interes-taldeak: Irabazi asmorik gabeko elkarteak, eskolak edo egoera zaugarrian dauden kolektiboak.

4. artikulua. Elkartearen eraketa

Behin betikoz adjudikazio-hartzaileak diren pertsonak behartuta egongo dira elkarte bat sortzera baratzeak kudeatzeko eta, horrez gain, udal kudeaketaren arduradunarekin zuzeneko harremana izateko pertsona bat izendatu beharko dute. Bozeramaile hori erabiltzaileen zalantzak, arazoak eta abar jasotzeaz arduratuko da.

Era berean, elkartearen helburua izango da Bergarako Baratze Parkea zaintzea, zuzen funtziona dezan, eta gutxieneko mantentze-lanak burutzea.

5. artikulua. Elkartearen funtzioak

Bergarako Udalak, uko egin gabe jabari publikoaren erabilera pribatiboa erregulatzeko duen obligazioari, uste du ortuetako kontzesiodunek, elkartearen bidez, jardueraren kudeaketa arruntan jardun behar dutela, era horretan eguneroko kudeaketaren ardura bereganatzeko.

Elkartearen funtzioak, besteak beste, honako hauek izango dira:

- Instalazioak eta jarduerak kudeatzea, horien plangintzaren bidez, eta saiatzea kontzesionarioen bidezko interes ezberdinak bateragarri egiten.
- Jarduerak garatzearen ondorioz sortu daitezkeen gorabeherak erabakitzea.
- Mantentze-lan arruntak egitea, hau da, ohiko erabileragatik hondatutako elementuak konpondu edo berriak jartzeko jarduerak.
- Urteko memoria bat aurkeztea. Hor agertuko dira aurreko urtean egindako jarduerak, memoria ekonomikoa, hartutako akordioak, elkarteko kideen zerrenda, zuzendaritza-

batzordearen aldaketak, eta abar. Halaber, aurreko urtean egindako bileretako akten kopiak erantsiko ditu.

- Instalazioen garbiketaz arduratuko da. Horretarako, garbiketa-egutegi bat aurkeztu beharko du udalean, eta, hala badagokio, kontratatutako enpresarekin sinatutako mantentze-kontratua.
- Udalak erabiltzaileen eskura jarriko dituen laborantzako tresna zein lanabesen inbentarioa eramango du. Halaber, hauen erabilera egokia kontrolatuko du eta, beharrezkoa dela ikusiko balu, tresneriaren mailegua arautu ahal izango du.
- Erabiltzaileen aurka irekitako ondare-ardurarengatiko espedienteetan eta zigor espedienteetan parte hartzea; hau da, kasu bietan, espedientearen instrukzioa izapidetu ondoren entzunaldia emango zaio elkarteko ordezkariari, izapidetutako espedientearen jakitun izan dadin eta, egokitzat joko balu, zigortuaren aldeko defentsan lagundu dezan.

6. artikulua. Lagapen-epea

Lursailaren aprobetxamendua edo/eta erabilera urtebeteko aldirako emango da, urte bakoitzeko abenduaren 31ra arte, eta gehienez lau urte arte luzatu ahal izango da.

Luzapenak adostutzat hartuko dira baldin eta aldeetako edozeinen aurretiko abisurik ez badago hilabete bat lehenago lagapena edo hurrengo luzapenak amaitu aurretik.

Adjudikazio-hartzaileak lizentzia-epearen azken hilabetean baratzea garbi utzi beharko du, hurrengo adjudikazio-hartzaileak lantzeko moduan.

7. artikulua. Baratzeak erabiltzeko printzipio orokorrak

1. Zaintze eta mantentzearen printzipioa: Baratze Parkearen maizterren betebeharr nagusia izango da errentan emandako lursaila behar bezala zaintzea eta mantentzea. Hori erabiltzerakoan behar adinako arreta izango du lurralde baldintza egokiak mantendu ditzan osasungarritasun, apainketa eta lanketaren aldetik.

2. Errespetuaren printzipioa instalazioak erabiltzerakoan: Aisialdirako baratze ekologikoen lagapen-hartzaile orok ezingo die eragin besteei eragozpen, kalte edo galerarik.

3. Salerosten ez aritzeko printzipioa: Baratzeen lagapen-hartzaile guztiek debekatuta izango dute baratzeak merkataritzako edo ekonomia-ustiapeneko helburuetarako erabiltzea.

4. Autohornikuntzarako printzipioa: Lurraren emaitzak, baratzeetan erabiltzeko sortutakoak, norberak edo familia-unitateak soilik kontsumitu ahal izango ditu, eta ezin izango da erabili inola ere etekin ekonomikorik lortzeko.

5. Ingurumen-neurriak hartzeko printzipioa: Baratze-erabiltzaileek ez dituzte erabiliko lurralde kalte larriak eragiteko moduko produkturik edota lurralde edo egon litezkeen akuiferoak kutsatu ditzaketan ongarririk, ezta produktu fitosanitarioren ere, ordenantza honetan laborantza ekologikoen inguruan ezarritako termino zehatzei jarraiki eta Europako Ekonomia Erkidegoak nekazaritza ekologikoari buruz emandako 835/2007 Erregelamenduko printzipioen arabera.

6. Uraren erabilera arduratsuen printzipioa: Baratze-erabiltzaileek uraren erabilera jasagarria eta arduratsua egingo dute, horretarako kontuan izan beharko dituzte honako hauek: uraren kontsumoa optimizatzeko euri-uraren erabilera lehenetsi beharko dute; ur-

hartuneak ezingo dituzte zabalik utzi; eta ez dute ureztatuko behar den baino gehiago (Udalak erabaki ahal izango du gehieneko m³-ak).

8. artikulua. Araubide aplikagarria eta araudia

1. Aisialdirako udal baratze hauen erabilera kalifikatu beharko da herri jabariko ondasunen erabilera amankomun berezi gisa, Tokiko Korporazioen Ondasunen Araudiko 75.1.b) artikulua ezarritakoaren arabera, eta horrenbestez lizentzia lortu beharko da; eta lizentzia-kopurua mugatua izango denez, baratze ekologikoen ustiapenerako erabilera-baimena zozketaren bidez adjudikatu beharko da eskatzaile izan direnen artean.

Dena den, Bergarako Udalak interes-taldeentzat lursail batzuk gorde ahal izango ditu bereziki, haiei zuzenean adjudikatzeke.

2. Beraz, jabari publikoko ondasunak erabiltzeko baimena izanik, informazio publikorako epe bat ezarriko da, 39/2015 Legearen arabera (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

3. Aisialdirako baratze ekologikoen adjudikazio, jabetza eta erabilerari aplikatuko zaien araubidea ordenantza honetan aurreikusitakoa izango da.

4. Izaera subsidiarioaz, 33/2003 Legean jasotako arauak aplikatuko dira (33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa).

9. artikulua. Lagapen-titulua

Lizentziaren arabera, baratzearen erabilera norberak egin behar du eta eskualdatu ezina da, eta lizentziak eragina soilik izango du lagapen-baldintzak betetzen diren bitartean. Erabiltzaileak ezingo ditu, inola ere, laga, zergapetu edo kostu bidez edo dohainik eman lizentziak emandako baimenaren erabilerari lotutako eskubideak. Eskubide horiek ezingo zaizkie eman inola ere beste hirugarren batzuei transmisioaren bidez.

Lizentziaren titulua «prekarioan» emango zaio erabiltzaileari. Horrez gain, interes publikoko arrazoiak daudenean, udalak emandako baimena baliogabetu ahal izango du edozein unetan, eta udalaren aldetik inolako kalte-ordain eskubiderik gabe.

Interes publikoko kausa justifikatuak izan daitezke, «aisialdiko baratze ekologikoen» programa ordezkatu edo harekin bateraezina den beste udal programa bat onartzea, edo baita udalak edo beste edozein herri-administrazio hiri edo azpiegituren garapenerako beste edozein plan onartzea, baldin eta zuzkidura publikorik ezarri beharko balitz aisialdirako baratze ekologikoen kokapen berean. Kasu horietan, aipatutako planaren onarpenak gizarte-intereseko edo erabilera publikoko aitorpen bat izango du, jabari-lursailen erabilerarako tituluen balioa indargabetuko duena, eta emandako baimenaren zati batean edo zeharo galtzea ekar lezake, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

10. artikulua. Baratzeetako programaren jarraibideak

Alkateak jarraibideak eman ahal izango ditu aisialdiko baratze ekologikoen programaren ezaugarri orokorren edo zehatzen inguruan, honela erak, ordutegiak, laborantza-motak eta abar diziplinatzeke, oro har nahiz bereziki. Baratze-erabiltzaileek jarraibide horiek derrigor bete beharko dituzte, bai eta gai horren inguruan Alkatetzak, zinegotzi ordezkariak edo horretaz

arduraten diren udal langileek erabiltzaileei idatziz emandako aginduak edo argibideak ere; horiek guztiak ere nahitaez betetzekoak izango dira-eta.

II. TITULUA

ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

11. artikulua. Onuraduna izateko baldintzak

1. Bergarako Baratze Parkean baratze ekologikoak hartzeko lizentzien onuradun izan ahalko dira Bergarako udalerrian errolaturiko eta benetan herrian bizi direnak gutxienez azken sei hilabeteetan –adjudikaziorako deialdia argitaratzen denetik kontaktzen hasita–. Eta horrez gain, honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Aisialdirako baratze ekologikoan garatuko diren nekazaritza eta laborantza jarduerak egiteko fisikoki gai izatea.

b) Bergarako Udalarekin zerga-betebeharretan edo beste edozein betebeharretan egunean egotea.

c) Beste baratze ekologiko baten erabiltzaile bat dagoen familia-unitate bateko kide ez izatea.

d) Aisialdirako baratze ekologikoren bat eduki izan eta ordenantza honetan aurreikusitako arauen bat ez betetzeagatik zigorren bat jasota ez izatea.

e) Baimenak irauten duen bitartean Bergaran errolatuta egon beharko da; errolda-aldaketak baimena galtzea ekarriko luke.

Adin txikikoek eskaerak egin ahal izateko, aitak, amak edo tutoreak abalatu beharko ditu; eta heldu hori izango da arduraduna ordenantza honen ondorioetarako.

12. artikulua. Lizentziak adjudikatzeko prozedura

1. Aisialdiko baratzeak okupatzea, erabiltzea eta gozatzea ahalbidetuko duten baimenak emateko aplikatu beharreko prozedura konkurrentziaren araubidezkoa izango da, baratze-kopurua mugatua baita. Dena den, arau hau ez zaie interes-taldeei aplikatuko, hauentzat udalak lursailak gorde ahal izango baititu horiek bereziki erabil ditzaten.

2. Prozedura hori udalak ofizioz hasiko du, horren haritik eskumeneko tokiko organoak (Alkateak) ebazpena eman ondoren. Bertan aisialdiko baratze ekologikoak hartzeko lizentziak emateko deialdia egingo da, baratze guztiena edo baratze-kopuru mugatu batena. Deialdi hori jendaurrean jarriko da Udalaren Iragarki Taulan eta udalaren web-orrian (www.bergara.eus).

3. Baratze ekologikoen adjudikazioan interesa duten pertsonak eskabide bat aurkeztu beharko dute Udal Erregistroan, eredu ofizialaren arabera.

Eskabideari erantsi beharko zaio, eredu normalizatuan eskatzen diren dokumentuez gain, honako dokumentazioa:

a) NAN edo ordezeko agiri legalaren fotokopia.

b) Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela adierazten duen dokumentazioa edo zinpeko adierazpena.

Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzailearen sei hilabete aurreko errolda eta egiazko bizilekua, arau-hausterik ez izatea eta udalarekin zerga betebeharretan edo bestelakoetan egunean dagoela.

13. artikulua. Eskumenak eta prozedura

Lizentziak emateko prozedura Alkatetzak ebatziko du.

Eskaera aurkezteko gutxieneko hamar (10) egun naturaleko epea ezarriko da. Ondoren, onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrenda onartuko da eta iragarki Taulan jendaurrean jarriko da. Interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte hamar (10) lan-eguneko epean gehienez. Epea amaitutakoan, eta jasotako erreklamazioak ebatzi ondoren, behin betiko zerrenda duen ebazpena emango da.

Onartu eta baztertu direnen behin betiko zerrenda argitaratzeko iragarkian, udalak jakinaraziko du zein egun, ordu eta tokitan egingo den partzelen adjudikazioa. Zozketa publikoa izango da eta edozein pertsonak ikusteko aukera izango du.

Alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia izango da mahaiburu. Udal idazkaria bertan izango da, eta egintzaren fede emango du.

Zozketa egiteko, onartutakoan eta baztertutakoan behin betiko zerrendan oinarrituko da eta zozketa arautzen duten irizpideen arabera egingo da.

14. artikulua. Lizentzien adjudikazioa eta ordezkoen zerrenda

Adjudikazio-hartzaileari ematen zaion lizentziak argi azaldu beharko ditu honako hauek: xedea, baratzearen definizioa eta kokapena, erabiltzailearen eskubide eta betebeharrak eta lizentziaren indarraldia.

Baratzeen adjudikazio-lizentziarik lortu ez dutenekin, hau da, onuradun izan ez direnekin, ordezkoen zerrenda osatuko da. Zerrenda hori bajak betetzeko erabiliko da, betiere baratze ekologikoak erabili eta gozatzeko okupazio-lizentziaren bidez emandako eskubideari borondatez uko egin diotenen edo eskubidea nahitaez galdu dutenen kasuan. Orduan, aipaturiko zerrendaren hurrenkeraren arabera hurrengo hautagaiari deituko zaio, betiere lizentziaren indarraldiaren barruan.

Baratzea erabiltzeko baimena eman ondoren, adjudikazio-hartzaileak, egokitu zaion baimena jaso ahal izateko, kitatu egin beharko du udalak urterako ezarritako prezioaren diru-kopurua, bai eta ezarritako fidantza jarri ere. Fidantza hori adjudikazio-epea iragan ondoren itzuliko da, baldin eta aldi berri horretan beste baratze baten adjudikazio-hartzaile ez bada.

15. artikulua. Baremazio-irizpideak

Baremazio-irizpideak dagokion lizitaziorako deialdian zehaztuko dira.

16. artikulua. Baimenen behin-behinekotasuna

1. Aisialdiko baratze ekologikokoak erabiltzeko eta gozatzeko baimenek lau urteko iraupen luzaezina izango dute. Dena den, titularrak hurrengo deialdietan parte hartu ahal izango du.

2. Kasuaren arabera eskumena duen organoak indargabetu ahal izango ditu aipaturiko lizentziak baldin eta betetzen ez badira baimena emateak ekarri zituen baldintzak edo adjudikazio-hartzaileei egokitutako betebeharrak –ordenantza honetan zerrendaturik daudenak–, eta betiere ezarritako prozeduraren arabera.

17. artikulua. Baimenen eskualdatzea eta iraungitzea

Bergarako Baratze Parkeko baratzeak erabiltzeko eskubidea ematen duten lizentziek ezaugarri hauek dituzte:

- a) Ezingo zaizkio hirugarren bati eskualdatu.
- b) Epea amaitzean iraungiko dira.
- c) Ezeztatu edo baliogabetu ahal izango dira:
 - c1) Elkarren arteko adostasunez.
 - c2) Epailearen erabakiaren bidez.
 - c3) Lagapen-hartzaileak uko egiteagatik.
 - c4) Beste udalerrri batean erroldatzeagatik.
 - c5) Ordenantza honetan edo dagokion lizentzia emateko ebazpenean jasota dauden betebeharrak ez betetzeagatik, interesdunari entzunaldia eman eta espedientea tramitatu ondoren.

III. TITULUA

BARATZEAK ERABILTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

18. artikulua. Erabiltzeko baldintza orokorrak

1. Bergarako Baratze Parkearen barruan, udal organo eskudunak sustatuko du baratze batzuek 20/1997 Irisgarritasun Legea betetzea, eta lehenetsiko du baratze horiek desgaitasunen bat duten pertsonen erabili ahal izatea.
2. Lursail bakoitza titular bakar bati adjudikatuko zaio eta horrek ezingo die beste hirugarren batzuei erabiltzen laga. Horrez gain, baratzea erabiltzeari eta gozatzeari dagokionez, honako betebeharrak bete beharko ditu:
 - a) Arau orokor gisa, errespetatu egin beharko ditu baratzeen erabilerari buruz ordenantza honetan jasotako alderdi guztiak.
 - b) Baratzeak soilik erabili ahal izango dira berez inguru honetakoak diren eta zurezko landareak ez diren baratze espezieak eta aldaerak landu eta aldatzeko; hau da, letxuga, tomatea, tipula, porrua, kalabazina, baba, etab. Era berean, loreak eta landare apaingarriak eta usaintsuak edo sendabelarrak ere landu daitezke. Gainerakoak baztertuta gelditzen dira.
 - c) Erabiltzeko lagatzen diren instalazioak eskuratutakoan zeuden baldintza berdinetan mantenduko dira, behar bezala zainduz. Lursailak garbi egon beharko du uneoro, bertan dauden landaketei kalterik eragin gabe.
 - d) Erabiltzeko lagatzen diren ondasunak zaindu eta babestu egin beharko dira. Udalari jakinarazi beharko diote baratze edo instalazioei eragindako edozein gorabehera, beste erabiltzaile batzuek zein kanpoko pertsonen eragindakoak izanda ere.
 - e) Lizentziaren epea amaitzen denean, udalari baratzearen jabetza itzultzea beste edozein erabiltzailek etekina ateratzeko moduko baldintzetan; edo lizentziari uko egin edo lizentzia baliogabetuz gero, hori burutzen den une berean.

f) Hasieran lagatzen den lursailaren egitura eta azalera bera mantentzea. Ezin dira aldatu udalak ezarritako mugak, ezta inolako obra edo itxitura motarik egin ere, behintzat udal organo eskudunak aurretik baimendu gabe. Era berean, instalazioaren titularrak ezingo du jarri lurra lantzeko ez den bestelako elementu espezifikorik, hala nola barbakoak, estalpeak, etxetxoak, etab., ez lurzorua azalaren gainean, ez lurpean.

g) Baratzeak erabiltzen dituzten gainerako pertsonen ez zaie eragozpenik sortuko; horrenbestez, ezingo dira erabili kalte edo lesioak eragin ditzaketen tramankulu, gailu edo sistematik.

h) Baratzean lurra lantzeko edo garbitzeko edo beste edozein erabilerarako, ezingo da erabili lurzoruan kutsadura eragin dezaketen inolako produkturik.

i) Baratzeetan ezingo da animaliarik eduki.

j) Baratzea lantzeari eta erabiltzeari ezingo zaio utzi, eta bereziki ezingo da fruiturik utzi baldin eta kiratsa sortu, lursaila zikindu edo ingurua edo paisaiaren kalitatea kaltetzen bada, nahiz fruituak landarean egon nahiz lurzoruan egon.

k) Baratzeen barruan ezingo da erabili trakzio mekanikoko ibilgailurik. Lursaila prestatzeko lurra irauli behar denean, golde mekanikoa soilik erabili ahal izango da.

l) Baratzeetan ez dira materialak edo tresnak pilatuko, ez baldin badira ezinbestekoak lurraren laborantzarako.

m) Baratzean egin beharreko lanetarako beharrezkoak diren gaitasunak eta baldintza fisikoak mantentzea. Alde horretatik, erabiltzaileak gaixotasun edo patologia larriren bat hartu badu eta horrek hilabete baino gehiagoko ezgaitasuna eragingo badio, berehala jakinarazi beharko dio udalari.

n) Baratzean, ezingo da erabili musika-ekiporik lurra lantzeko lanetan egonaldia girotzeko.

3. Elementu komunak –bai azpiegiturak, bai lanabesak– erabilera eta garbitasun baldintza egokietan errespetatu eta mantendu beharko dira. Erabiltzaileak bete egin beharko ditu, ezinbestez, erabiltzaileen taldeko gehiengoak elementu komunen mantenurako ezarri dituen erabakiak. Era berean, erabiltzaileen taldeak ordezkari bat edo batzuk aukeratu beharko ditu, elementu komunen gaineko erabaki lotesleak hartzeko eta udalarekiko harremanetan bozeramaileak izateko.

4. Lizentziaren titularrak aurreko atalean adierazitako baldintzetako bat beteko ez balu, udalak lizentzia kendu ahal izango dio.

5. Era berean, erabiltzaileek eurek zainduko dute egunero-egunero baratzearen kontserbazioa, konponketa, instalazioen mantenua eta erabileraren egokitasuna, eta haien erantzukizuna ere izango da azpiegituren kontserbazioa, konponketa, instalazioen mantenua eta erabileraren egokitasuna, baldin eta ez badira ondo erabili.

6. Adjudikazio-hartzaileek derrigorrez hartu beharko dute parte udaletik antolaturiko baratze ekologikoari eta nekazaritza-praktika egokiei buruzko ikastaroan.

7. Behin betiko adjudikazio-hartzaile direnak behartuta egongo dira baratzeak kudeatzeko elkarte bat eratzea, eta kudeaketarako udal arduradunarekin harremanetan jartzeko pertsona bat izendatu beharko dute. Horrek erabiltzaileen zalantzak, arazoak, etab. jasotzeaz arduratuko da.

8. Erabiltzaileen elkarteak egutegi bat ezarri beharko du, behar diren mantentze-lanetan lankidetzan jarduteko (lursailak mugatzea, ur-askak garbitzea, etab.). Egutegi hau adostuta egongo da udal zerbitzu teknikoekin.

9. Adjudikazio-hartzaileek bete egin beharko dute ixteko eta irekitzeko ordutegia, erabiltzaileen elkarteak udal zerbitzu teknikoekin batera ezarritakoa.

19. artikulua. Lurraren aprobetxamendua

1. Lagapenaren titularra beharturik dago lagatako baratze-lursaila nekazari on baten arduraz lantzeraz eta lanabes egokiak erabiltzera. Aurreko artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, baratzeen aprobetxamenduak arau hauek bete beharko ditu:

- a) Ezingo da landatu lurra, zorua edo azpiko lurra hondatu ditzakeen landare edo barazkirik.
 - b) Era berean, erabiltzaileak ezingo du espezie exotiko edo inbaditzailearik landatu, ezta legez onartuta ez dagoen bestelako landararik ere.
 - c) Bestalde, ezingo dira sasoikoak ez diren espezieak landatu; ezta uzta jasotzeko zortzi hilabetetik gorako epea behar dutenak ere, ez eta inolako zuhaitz espezierik landatzea ere, ezta fruitu-arbolarik ere.
 - d) Ezingo dira instalatu negutegirik, kaxarik, iltzaturiko elementurik, txabolarik, txorimalorik, arranpalorik edo panpinarik.
 - e) Aisialdirako baratze ekologikoen eremuaren barnean debekaturik geratuko da larre-hondakinak edo baratzeetako laborantza-hondakinak erretzea, baita inolako surik piztea ere.
 - f) Ezin da likidorik isuri besteen baratzeetan, ezta sastraken edo garbiketaren hondakinak besteen edo norberaren baratzeetan utzi ere.
 - g) Ez da baimenduko paisaia kaltetzen duten elementuak instalatzea, ezta dauden instalazioak aldatzea ere, hala nola bidoirik, ur-biltegi osagarririk, xaflarik, bereizgailurik edo antzekorik.
 - h) Ezin da eraikuntzarik egin lursailetan, ezta itzalperik edo zintzilikatze tresnarik edo inguruaren itxura alda dezakeen bestelako elementurik erantsi ere.
 - i) Ezingo da erabili pozoirik, zeporik, tranparik, lakiorik edo perdigoik edo balin eskopetarik, tiragomarik edo beste tresna edo bitartekoen bidez egindakorik.
 - j) Ez da baimenduko lursailetan inolako itxiturarik jartzea, ez edozein motatako hesirik ere —ez harri, egur, adreilu edo blokezikorik ere—, ezta eraikitze edo mugatzeko bestelako elementurik ere baratzea ixteko, mugatzeko, markatzeko edo baratze izkinak edo ertzak seinalezatzeko ere. Soil-soilik udalak ezarritakoak mantenduko dira.
2. Lizentziaren titularrak aurreko atalean adierazitako baldintzetako bat beteko ez balu, udalak lizentzia kendu ahal izango dio.

20. artikulua. Adjudikazio-hartzailearen ahalmenak

Erabilera amankomun berezi hau egiteko lizentzien adjudikazio-prozeduran adjudikazio-hartzaile izan den pertsonaren ahalmenak hauek dira: aisialdirako baratze ekologikoa osatzen duten lurak eta gainerako elementuak edukitzea, erabiltzaile gisa, eta erabiltzaileei dagokien aprobetxamendua izango da baratzeetan landu dituzten barazki espezieen etekinak jasotzea, hau da, lurrotatik lortutako fruituak.

1. Ahalmenak, zehazki, hauek dira: lurra erabiltzea, gozatzea eta aprobetxatzea, eta horrek berekin dakar lurra goldatzea, ereitea eta landatzea, lurra zaintzea eta mantentzea, ureztatzea, ongarrizatzea, horretarako beharrezko tresnak erabiltzea, fruituak biltzea, eta

barnean uler daitezkeen gainerako ahalmen guztiak, lagatzen den ondasunaren helburu eta izaerari jarraiki.

2. Era berean, ahalmenen barnean sartuta daude elementu komunak erabiltzea, gozatzea eta aprobetxatzea, eta horren barruan udalak erabiltzaileen eskura jartzen dituen laborantzarako lanabesak erabiltzea.

3. Artikulu honetan adierazitako ahalmenak lizentziaren titularrari baino ez dagozkie.

4. Ahalmen horiek iraungiko dira erabiltzeko lagapenaren epea amaitzen denean, edo erabileran ahalbidetzeko lizentzia baliogabetzen bada, ordenantza honetan jasotako zergatien arabera.

5. Inola ere ez da ulertuko baratzeen gaineko jabetza-eskubidea eskualdatu denik, betiere horien jabari-izaera kontuan hartuta; izan ere, jabari publikoa izanik, baratzeak dira enbargaezinak, besterenezinak eta preskribaezinak.

21. artikulua. Nekazaritza ekologikoa. Nekazaritza-bioaniztasuna

Baratzeen erabiltzaile onuradunek ezingo dute erabili lurrak, gainazaleko urak edo akuiferoak kutsatu eta kalte larria sor lezaketen ongarririk, ez produktu zoo eta fitosanitariorik, edo atmosferara nahi ez ditugun partikulak isuri edo inguruko faunan eta floran eta bertako bizilagunengan kalteak eragin litzaketenik. Era berean, ezingo da erabili lurra kutsatzen duten produktu kimikorik.

Halaber, erabat debekaturik dago lurrean kalte larria sor dezakeen edozein produktu kutsatzaile isurtzea. Izurriteen eta gaixotasunen aurka, irtenbide naturalak erabiliko dira. Lurra gai organikoaren bidez ongarrituko da, aldeztu aurretik usteldutakoa (konposta, simaurra, hondakin organikoak, etab.).

Ongarri organikoa erabiltzerako orduan, lehentasuna izango du baratzeetan bertan sortutako konposta eta, bigarren maila batean, Bergarako udalerrian auzo-konpostean sortutako konposta. Bi kasuetan, aurrez, elikadura-esparruan erabiltzeko gaitasunerako analisiak egingo zaio konpostari, konpost hori jateko izango diren barazkiak ekoizteko gai den ala ez jakiteko. Analisi horiek egitea elkarrearen betebeharra izango da.

Ez da erabiliko ongarri artifizialik.

Jarduera hau laborantza-metodo tradizionalekin lotu nahian, baina ingurumenaz modu zientifikoan arduratzen diren ezagutza eta teknika berriei uko egin gabe, landu beharreko nekazaritza hau ekologikoa izan beharko da. Hortaz, ez da erabiliko produktu kimikorik. Produktu «kimikoak», produktu «naturalen» kontrako gisa, jatorri hauetatik lortutako produktuak dira —sinpleak edo konplexuak—:

- a) Tratamendu kimiko bidez lortutako produktu naturalak.
- b) Landare gaietatik edo animalia-ehunetatik tratamenduen bidez sortutakoak,
- c) Sintesi kimikoaren bidez, partziala izan ala ez, lortutakoak (A. Dehovelen arabeko definizioa).

Gauzak ulertzeko modu horrekin bat etorrira, aisialdirako baratze ekologikoen erabileran nekazaritza ekologikoaren arau hauek hartu beharko dira kontuan:

1) Ongarriei dagokienez:

Honako hauek debekatuta daude:

a) Sintesiko ongarri organiko guztiak (Espainiako estatuan saltzen diren guztiak) eta produktu kutsatuekin egindako konpostak (pestizidekin eta herbizidekin tratatutako lastoak, simaurrak, belarrak eta ongarri organikoak).

b) Prozedura kimikoen bitartez lortutako ongarri mineral guztiak (nitrogenatuak, fosfatatuak, potasikoak, magnesikoak, kare bizia, etab.).

Onartuta daude honako hauek:

a) Zizareen humusetik eratorritako ongarriak, konpostatutako simaurrak (konpostajea fermentazio aerobikoaren prozesutzat ulertuta), ongarri berdeak eta erabat usteldutako uzta-soberakinak, bai eta kutsatu gabeko hondakinekin egindako konpostak ere.

b) Jatorri naturaleko ongarri mineralak (txikitutako fosfato naturalak, silizeen hautsak, kareharri txikituak, dolomitak, etab.).

2) Tratamendu fitosanitarioei dagokionez:

Honako hau debekatuta dago:

a) Intsektizida, fungizida eta akarizida eta sintesi kimikotik eratorritako beste produktu guztien erabilera.

Onartuta daude honako hauek:

a) Substantzia natural mineral, begetal edo animalienetan oinarrituta sortutako fungizidak (Bordeleko salda, Borgoinako salda, etab.).

b) Landareekin egindako produktuak (beratzeak, infusioak, egosketak, purinak).

3) «Belar txarrei» dagokienez:

Debekatuta dago edozein sintesiko herbizida kimiko erabiltzea.

Onartuta dago belar lehiakorren kontrolerako metodo biologikoak erabiltzea (lur-estaltzea, eskuz jorratzea edo erdi eskuz jorratzea, zapalda edo baratze-maila sakoneko laborantza).

4) Haziei eta landareei dagokienez:

Debekatuta dago honako hau:

a) Birlandatzeko, laborantza kimikotik datozen barazkiak erabiltzea.

b) Prestatzeko edo kontserbatzeko sintesiko produktu kimikoekin tratatutako sustrai, erraboil eta tuberkuluak erabiltzea.

c) Bildu ondoren produktu kimiko sintetikoekin tratatutako haziak erabiltzea.

d) Genetikoki aldarazitako edozein motatako eta bariatatetako organismo guztiak (transgenikoak).

Onartuta dago honako hau:

a) Nekazaritza biologikotik eratorritako barazki, sustrai, erraboil, tuberkulu eta haziak erabiltzea.

b) Ohiko laborantzetatik eratorritako produktuak izan arren, produktu kimiko sintetikorik gabe tratatu diren produktuak erabiltzea. Garatu beharreko laborantza ekologikoak ekoizpen eta kontsumo jasangarrien praktiken eredu izan behar du.

22. artikulua. Ureztatze baldintzak

1. Baratzeen erabiltzaile titularrek, ureztatzeko, Bergarako Baratze Parkean kokatu diren instalazioen barruan eskura dituzten baliabideak erabili behar dituzte; hau da, ureztontzien bidez ureztatuko da, asketako ura erabiliz.
2. Ureztatzeko euri-uraren erabilera lehenetsiko da. Hau nahikoa ez balitz elkarreak onartu dezake ur-edangarriaren erabilera; horretarako kontagailu bat jarriko da eta Uraren Ziklo Integraleko Erregelamenduan jasotzen den prezio publikoa elkarteari kobratuko zaio. Nolanahi ere, eta abusuak ekiditeko, udalak mugatu ahal izango du ur edangarriaren erabilera.
3. Ezingo da erabili eskuragarri daudenen aparteko beste elementurik, eta lurrak soilik ureztatu ahal izango dira, hodian bidez eta zuzenean zorura, ildora edo tantaka; debekatuta dago, beraz, ihinztargailuak edo inguruko baratzeak inbaditu ditzaketen beste baliabide batzuk erabiltzea.
4. Baratzeak ureztatzeko, debekatuta dago ura ekartzea horretarako prestaturik ez dagoen beste nonbaitetik.
5. Edonola ere, ur-hartunea irekita uztea saihestuko da, ureztatzeko ura ez da alferrik xahutuko, eta ez da erabiliko eskura dagoen uraren ezohiko kontsumoa eragin dezakeen metodorik. Horiek guztiak lizentzia baliogabetzeko arrazoiak izan daitezke.

23. artikulua. Hondakinaren tratamendua eta biohondakinaren konpostatzea

1. Baratze-erabiltzaileen erantzukizuna izango da bai egokitzen zaien lursaila baita Baratze Parkeko eremua ere garbi mantentzea. Hondakinak udalak horretarako jarritako edukiontzian edo agindutako tokian utziko dira.
2. Hondakin organikoei dagokienean, erabiltzaileak baratzean sortutako biohondakinak konpostatzera behartuta egongo dira, horretarako udalak Bergarako Baratze Parkean egokitutako azpiegitura erabiliz.
3. Gainerako hondakinak gaika bilduta utzi beharko dituzte soil-soilik udalak horretarako ezarritako gunean edo zaborrontzian.

24. artikulua. Lurra emandako fruituen erabilera

1. Erabiltzaileek lurra laborantzatik eskuratzen dituzten fruituak biltzeko eskubidea izango dute, baina soilik norberak edo norberaren familia-unitateak kontsumitu ahal izango ditu.
2. Debekatuta dago erabiltzaileek aisialdirako baratze ekologikoetatik jasotzen dituzten baratzeko produktuak saltzea, baita horien trafikoko juridiko komertziala eragingo lukeen eragiketa komertzialik ere.

25. artikulua. Mantentze eta finantzatze gastuak

1. Baimena indarrean dagoen aldi osoan zehar, baratze-erabiltzaileak bere gain hartuko ditu baratzea lantzeak dakartzan gastuak, hala nola ongarriak, ereindako landareak eta lurra lantzeko beharrezkoak diren gainerakoak. Horrez gain, saila ekoizteko moduan behar bezalako zaintze-baldintzetan mantendu beharko du.
2. Erabiltzaileek ordaindu beharko dute Zuzenbideari jarraiki eta behar bezala justifikatuta egokitzen zaien karga oro (zerga, kanona, etab.) baldin eta udalak onartzen badu hori

beharrezkoa dela baratzeen erabilerak edo erabiltzaileen komunitateak eragindako kostuak ordaintzeko.

3. Erabiltzaileek ortuaren erabileragatik prezio publiko bat ordaindu beharko dute, urtero, udalak onartzen dituen ordenantza fiskaletan ezarritakoa, alegia. Aipatutako prezio publikoa Udal Zerga Ordenantzan jasoko da eta bertan zehaztuko dira urtez urteko aldaketak. 2021eko ekitaldirako kopuruak ondorengoak izango dira:

a) Kanona: 60,00 euro urte betez baratze bat erabiltzeagatik eta kontsumitutako urarengatik.

b) Fidantza: 100,00 euroko fidantza, udal jabari publikoaren erabilera zuzena bermatzeko. Fidantza hori itzuliko da lagapena behin betiko amaitzean, betiere atxikitzeko arrazoirik ez baldin badago.

Oro har, lehenengo urteko prezioa eta fidantza ordainduko dira baratzea erabiltzeko udal lizentzia ematen den unean bertan.

3. Elkartek, bere aldetik, ur-edangarriaren kontsumoa eta argindarra ordaindu beharko ditu.

26. artikulua. Ingurumen Hezkuntza

1. Bergarako Baratze Parkean dauden instalazioak hainbat ikastetxetako ikasleek bisitatu ahal izango dituzte, bai eta hainbat elkartek ere, era horretan bertan burutzen diren jarduerak ezagutarazteko eta, bide batez, nekazaritza tradizionala eta ekologikoa erakusteko.

2. Hala izan dadin, baratze-erabiltzaileak behartuta egongo dira sartzen uztera, baratzeek duten irekiera-ordutegian zehar, udalak antolatutako bisita-taldeei.

3. Halakoetan, erabiltzaileek ikasleekin batera doazen irakasleei edo gainerakoei lagundu beharko diete, ahal duten neurrian, baratzeetan dauden bitartean. Era horretan bisita-taldeei azalduko diete zein diren fase desberdinetan dauden lurra lantzeko teknikak eta ezaugarriak: lurra prestatzea, ongarritzea, ereitea edo landatzea, ureztatzea, jorratzea, izurriteak ezabatzea, uzta biltzea eta hondakinak jasotzea.

4. Halaber, erabiltzaileek naturari eta lurrari loturiko balioak transmititu ahal izango dituzte. Horretan dituzten ezagutzak azalduko dituzte, lurra lantzeko erabilitako metodoei eta tokiko espezie eta barietateei buruz, bai eta ikasleen edo beste talde batzuen interesa pizteko moduko beste edozein daturi buruz ere, bereziki nekazaritza tradizionalaren eta ekologikoaren alorrean edo, oro har, ingurumenaren alorrean. Horrez gain, belaunaldien arteko harremanak ere sustatuko dira.

27. artikulua. Erabiltzaile-izaera galtzea

1. Ordenantza honetan ezarritako ez-betetzeak Bergarako Baratze Parkearen erabiltzaile-izaera galtzea dakar eta, horrenbestez, galdu egiten da gozatzen zen erabilera amankomun bereziko eskubidea eta baratzea erabiltzeko baimena eta eskubidea.

2. Bereziki, erabiltzaile-izaera kasu hauetan galduko da:

a) Baratze-erabiltzaile onuradunak atzera egiten badu edo eskubideari uko egiten badio, udal aurrean aurkeztutako idatziaren bidez.

b) Erabiltzailearen heriotza, edo baratze lanak burutzea eragozten dion gaixotasuna gertatzea.

- c) Errolda aldatzea, edo iraunkortasunez ez biziitzea benetan eta eraginkortasunez udalerrri honetako etxebizitza batean lizentzia indarrean dagoen epealdi osoan zehar.
- d) Lursailaren laborantza edo erabilera bertan behera utzita egotea bi hilabetetik gora.
- e) Adjudikazioa egitea eragin zuen baldintzaren bat gerora aldatu delako.
- f) Ordenantza honetan zehazturiko bateraezintasun edo debekuren bat gertatzea.
- g) Baratzea erabiltzea ordenantza honetan ezarritako bestelako erabilera eta helburuetarako.
- h) Udalak edo beste edozein administrazio publikok hirigintzako edo azpiegiturako edozein plan onartzea baldin eta horrek ekartzen badu hornikuntza publikoren bat ezartzea Bergarako Baratze Parkea osatzen duten lursailetan. Halakoetan, horrelako plana onartzeak berarekin ekarri beharko du erabilera publikotzat edo gizarte interesekotzat aitortzea; izan ere, horren ondorioz laga ahalko dira indarrik gabe herri-jabariko lursailak erabiltzeko emandako tituluak.
- i) Bizikidetzaren eta auzo-harremanen oinarritzko arauak ez betetzea edo elkartasunik gabeko jarrera izatea, baratzeen gainerako erabiltzaileekin.
- j) Arau-hauste larri edo oso larriarengatiko zigorra ezarrita izatea, lizentzia baliogabetzea baitakarte beti.

28. artikulua. Lizentzia baliogabetzeko prozedura eta erabiltzaile-izaera galtzea

